

MELOI SALTZAILEA

Torre-Pacheco



JUNE FERNANDEZ

Twerk klasean gertatu zen, Bilbon. Merkataritza-gune batean dago dantza eskola, eta kortinek ez ituzte kristalak erabat tapatzen. Emakumezko lau ikasleok eta irakasleak luzaketak egiten geundela, gure short labur eta topak jantzita, bi mutiko hasi zitzaizkigun kristalaren bestaldetik zirikatzen. Ez zituzten 15 urte baino gehiago. Nire ama izaeraz kontziente izan nintzen, nik umeak baino ez baintuen ikusten haiengan; eraso baino umekeria iruditu zitzaidan. Beste ikasleak, aldiz, amorratuta zeuden. Bata, seguruenik gazteena, altxatu eta oinutsik atera zen dantza eskolatik, mutikoen atzetik korrika.

Buelatu zenean esan zuen umeek ihes egin zutela, baina itzultzen baziren prest zegoela Poliziari deitzeko. “Ezta pentsatu ere, asko jota segurtasun langileari emango diogu abisua”, erantzun zion irakasleak. Orduan, neska gazteak zera esan zuen: “Ohartu zarete mutil horiek ez direla bertokoak? Bata beltza eta bestea moroa. Hemengo gazteek ez dute horrelako errespetu faltarik izaten”.

Momentu hartan, erabat aldatu zen taldeko giroa. Beste bi ikasleek irmo erantzun zuten: “Horrek ez du zerikusirik, eta mutiko horiek seguruenik bertokoak dira”. Hitza hartu nuen nik orduan: “Eskertuko nuke halako iruzkinik ez egitea nire aurrean”. “Ezta nire aurrean ere”, esan zuten beste biek. Irakaslea mutu geratu zen; beltza da bere bikotekidea eta seme-alabak izan nahi ditu berarekin. Ikaskide arrazista isildu zen.

Pozteko modukoa zen iruzkin arrazistak gaitzespen osoa jaso izana. Alabaina, dantzaldia zapuztu zidan egoerak. Bereziki iraingarria iruditu zitzaidan, kontuan izanda *twerk* dantza New Orleanseko komunitate beltzaren ondarea dela, Jamaikako *dancehall* musikatik eratorria, reggaetoia bezala.

Biharamunean hedabideetan irakurri nuen Santiago Abascal laudiotarrak aldarrikatu dituela etorkinen (eta etorkin jatorriko bertokoen) kanporatze masiboak, hurrengo irizpideak hartuta: delitu-egileak, erlijio “arrotzak” inposatu nahi dituztenak eta emakumeak erasotzen dituztenak.

Diskurtso horren beroaldian, pasa den asteburuan faxistek magrehtar jatorriko mutikoak lintxatu dituzte Torre-Pacheco, Murtzian. Gizon zahar baten kontrako eraso (ez dago argi *bulo* bat izan ote den) “etorkinen ehizarako” aitzakia bihurtu dute. *Twerk* kidea irudikatu dut ultrak txalotzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

